

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ERRIOXAKO UR PARTZUERGOA

Behin betiko onespena ematea ur homidura eta hondakin uren tratamendu zerbitzua ematearen prezioak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Arabako Errioxako Urkidetzaren Batzar Nagusiak, 2020ko ekainaren 12an eta balioz egindako bilkuran, berretsi zuen aldatzea ur hornidura eta hondakin uren tratamenduagatik ordaindu beharreko prezioak arautzen dituen ordenantza 2.7 puntual (2020ko otsailaren 24ko ALHAO, 22. zk.), eta jendaurrean egon den 30 egunetan ez zaionez alegaziorik aurkeztu hasierako onspenari, behin betiko onesten da. Honela geratzen da idatzita:

2.7. Sute-zutabearen zerbitzua: hiruhileko kostua.

Kostu finkoa. kontagailua: 11,42 euro.

Kostu aldakorra. Kontsumoa, metro kuboak: 1,50 euro.

Erabilera arrazoitua bada, hala nola, suhiltzaileek erabili dutelako edo partzuergoak aztertu eta onartu duelako, ordaintzetik salbuetsi daiteke.

Bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da, interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak idatziz aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; erabaki hau behin betiko onartutzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guardia, 2020ko ekainaren 17a

Lehendakaria

JUAN JOSÉ GARCÍA BERRUECO